Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Luisa Mujika Zurutuza

Ataun, Gipuzkoa (1924)



Aurkibidea

Biografia



Ataungo Lauztierreka auzoan jaioa, Lauztigarakoa baserrian. Aita jaiotetxe berekoa zuen, eta ama Teletxe baserrikoa. Hamabi senidetan hirugarrena, Lizartzara joan zen neskame. Atauna itzuli zen handik, eta San Gregorioko etxe batean hamalau urte eman zituen umezain. Ataungo Hirubideko janari-dendan ere egin zuen lan garai hartan, hemezortzi-hemeretzi urterekin. Gerora Hundietxetxikira ezkondu egin zen, Astigarraga auzora.

Zintak

ATA-015

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Data**: 2011-08-10
- **Iraupena**: 70 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Txikitatik umezain etxean

- **Erref**: ATA-015/002
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:01:18. **Bukatu**: 00:02:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Etxeko lanak eta umezain egin behar izaten zuen ume-umetatik. Etxeko lana ez omen da ikusten. Orduan ez zen taka-takarik eta jostailurik.

Transkripzioa
- Ume batzuk hazitakoa izango zea ordun o zaindutakoa behintzat.
- Bai, pentsa zazu ba. Neoni eoten nintzen. Bi zaharrenak juten zien lanea aitte-amekin baserria, lanea, ta ni gelditzen nitzen etxeen umezain. Eta etxea etorri ta geo demanda igual ematen zien ahizpak. Zeatik otordue igual ta, [zerbait ez non eingo han gustoa lanak eittea]. Ama zana [onenak] eta, beste ahizpa zaharragoa non eta. Ta nik nahigo izaten non kanpoa jutea, e! zeatik etxen gelditzea baiño… etxeen… etxekolana ez da ikusten ba. Eta demanda igual ematen zien: “Nun eon haiz?” o “Ze ein den?” eo “Ze itten aritu haiz eo?” E? Eta hala. Etxeen ni, jeneralen ni etxeen gelditzen nitzen umezai. Aitte-amak eta bi ahizpa zaharrenak juten zien baserria lanea eta ni etxen.
- Ta umek oain bezela eoten al zian beaien sihaska propioakin ta taka-takak eta jostailluekin…
- Bai, hoixe…! Hola uste al dezu? Ez zan taka-takaik eta, ez zan gue etxen jostailluik. Keba, ezta pentsau ´re! Ezta, ezta ezerre e! Gu baserrin behintzet pentsa zazu ba nola aitzen giñen. Baserri haundie zan, haundie zeuken, eta… jostailluik eta gauzaik, holako… holako gauzaik ez. Ez dakit nik ze ekarriko ziuen, ez naiz ezer akordatzen.

2. Zapiak, orduko painalak

- **Erref**: ATA-015/003
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:02:40. **Bukatu**: 00:04:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:
Orduan zapiak ipintzen zitzaizkien umeei pixoihal gisa. Nolakoak ziren eta nola jartzen zitzaizkion. "Paxea", "mantea" eta abar. Berak ere hala hasi zituen bi zaharrenak. Eskuz garbitzen ziren.

3. Umezain etxetik kanpo

- **Erref**: ATA-015/004
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:04:45. **Bukatu**: 00:05:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Hainbat lekutan ibili zen umezain: Ataunen bertan, Lizartzan, berriz ere Ataunen... Azkenengo lekuan 14 urte pasatu zituen, eta lau ume hazi zituen.

4. Ataungo auzoen arteko pikeak

- **Erref**: ATA-015/008
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:08:05. **Bukatu**: 00:11:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
San Martinekoek "señorito" fama omen zuten, San Gregoriokoek harroxko fama. Auzoen arteko pikeak; San Martin, San Gregorio, Aia, Ergoiena... Hizketan ere ezberdin egiten da auzo bakoitzean.

5. San Gregorioko festak

- **Erref**: ATA-015/009
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:11:20. **Bukatu**: 00:12:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
San Gregoriorako joera zuen jendeak erromeriarako. San Martin "ziudadea" omen zen. Herriko festetan ere garaiz etxeratzen ziren, ez ziren gaueko erromeriara geratzen.

6. Guardiaz zibilak dantzaldia eten lotuan ari zirelako

- **Erref**: ATA-015/011
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:13:46. **Bukatu**: 00:15:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Dantza soltean egiten zen. Behin Beasaingo banda etorri eta lotua jotzen hasi zen, baina Guardia Zibilak parte hartu eta dantzaldia desegin zuen. San Gregorioko bikarioa oso gogorra omen zen. Ergoiengo neskak Mariaren Alabetatik bota zituen dantza lotuan egitearren.

7. Neskak dantza lotuan ezkutuko lekuan

- **Erref**: ATA-015/012
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:15:08. **Bukatu**: 00:16:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Sekula ez du egin lotuan dantzarik. Auzoan baziren neska batzuk elkarrekin lotuan ibiltzen zirenak erdi ezkutuan.

8. Mutilak "faborez" eskatzen dantzan sartzeko

- **Erref**: ATA-015/013
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:16:25. **Bukatu**: 00:18:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Dantzari onak eta ez hain onak egoten ziren. Mutilak "faborez" esanez sartzen ziren dantzara. Festen bigarren egunean pasatzen zuten ondoen.

9. Neska-laguntzea eta guraso estuak

- **Erref**: ATA-015/014
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:18:00. **Bukatu**: 00:21:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Neska-laguntzea egiten zen erromeria ondoren. Nola izaten zen hori. Hortik bikoteak sortzen ziren. Neskak ez zuten ekimenik. Goiz erretiratu behar izaten zuten. Zain egoten ziren arrosarioa esateko. Gurasoak oso estuak ziren.

10. Modako arropa berria ahizparen laguntzaz

- **Erref**: ATA-015/015
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:21:02. **Bukatu**: 00:23:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Arropa berria egiten zuten egun seinalatuetarako. Modako arropa, ona. Bera neskame egon zen, eta baserriko ahizpak laguntzen zion diruz arropa berria egiten. Oso gutxi irabazten zuen neskametzan.

11. Luistarrak jauna hartzen Kontzesio Egunean

- **Erref**: ATA-015/017
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:24:52. **Bukatu**: 00:25:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Gogoan du nola soldadutzatik etorritako Luistarrak denek batera jauna hartzen zuten Kontzesio Egunean, beren zinta eta guzti.

12. Ilea apaintzen

- **Erref**: ATA-015/019
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:27:33. **Bukatu**: 00:30:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:
Ilea kizkurtu egiten zuten egun handietan apaintzen zirenean. "Rizadoreak" nolakoak ziren. "Permanentea" ere asko egiten zen, baina berak ez zuen ohiturarik. Ondak nola egiten ziren. Ilea horitzeko garagardoa edo kamamila erabiltzen zuenik ere ba omen zen.

13. Soineko berria eta berokia

- **Erref**: ATA-015/021
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:31:40. **Bukatu**: 00:33:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Festetarako egiten zuten soineko berria eta berokia San Martinetarako. Aste Santurako ez zen hainbeste prestakuntza egiten. Dena dela, prozesioetara dotore joaten ziren.

14. Bi plantxa mota

- **Erref**: ATA-015/022
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:33:16. **Bukatu**: 00:34:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Plantxa elektrikoak zein bestelakoak ezagutu ditu. Ikatzaz brasa eginda berotzen ziren plantxa zaharrak.

15. Garbigailuari ezetza eman zion

- **Erref**: ATA-015/023
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:34:45. **Bukatu**: 00:36:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Neskame zegoen lekuan garbigailua erostea proposatu zioten Luisari, baina ez zuen nahi izan; nahiago izan zuen eskuz garbitzen jarraitu. Nola garbitzen zuen arropa.

16. Harizko arropa hobea garbitzeko

- **Erref**: ATA-015/025
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:37:09. **Bukatu**: 00:38:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak

Laburpena:
Harizko arropa erabiltzen zen orduan. Amona haria egindakoa zen. Aitak ere egiten zuen, baina artilez. Harizko izarak errazago garbitzen dira.

17. Koltxoiak artilez egiten

- **Erref**: ATA-015/027
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:40:15. **Bukatu**: 00:42:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Koltxoiak artilez egiten ziren. Orduan estimazio handia zuen artileak. Beratu eta garbitu egin behar zen. Ezkontzen aurretik nabarmena izaten zen artile mugimendua baserrietan.

18. Somierra edo lastaira

- **Erref**: ATA-015/028
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 00:42:42. **Bukatu**: 00:46:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Koltxoiaren estalkia. Urtero artilea atera eta jo egiten zen harrotzeko. Somierra edo lastaira arto-txurikinezkoa izaten zen.

19. Sexu-heziketarik ez

- **Erref**: ATA-015/031
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:48:18. **Bukatu**: 00:50:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:
Ez zuten sexuaz edo umeen jatorriaz hitzerdirik entzuten gurasoen ahotik. Dena kanpotik jakin zuten.

20. Bataioa eta "elizan sartzea"

- **Erref**: ATA-015/032
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:50:25. **Bukatu**: 00:52:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:
Bataioa berehala egiten zen. Ama handik hamabost egunera-edo joaten zen elizara, "Elizan Sartzea" egitera. Atarian errezu batzuk egiten zituen apaizak. Meza ondoren opariak eramaten ziren apaizetxera. Oiloa eta erregaluren bat eramanda dago behin edo berriz Luisa. Elizan sartu aurretik ezin zuen ama berriak etxetik irten.

21. Erditutako amari bisita auzoko andreek

- **Erref**: ATA-015/033
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:52:45. **Bukatu**: 00:54:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:
Haurra izandako amari bisita egiten zitzaion. Jateko eta edateko zerbait eramaten zen eta merienda egiten zuten auzoko andreek. Batek ardo mindua ekarri ohi zuen.

22. Janari-dendako gorabeherak

- **Erref**: ATA-015/036
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:55:26. **Bukatu**: 00:57:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Azukrea, kafea, ardoa, abarketak... saltzen ziren dendan. Kilo laurdenka saltzen zen produktu asko. Pisu gorabeherak.

23. Bi janari-denden arteko konpetentzia

- **Erref**: ATA-015/038
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:58:20. **Bukatu**: 00:59:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Bi denda zeuden orduan Ataunen. Lehia handia izaten zuten. Jabeek begi txarrez begiratzen zieten beste dendan sartzen zirenei.

24. Baserritarren sindikatua

- **Erref**: ATA-015/040
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 01:00:06. **Bukatu**: 01:01:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Baserritarren sindikatuan zegoen San Isidroren irudia harrapatu egin zuten soldadu nafarrek. Sindikatua zer den.

25. Nazionalistak eta karlistak lehian

- **Erref**: ATA-015/042
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 01:01:40. **Bukatu**: 01:03:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Baserri handiak zeuden batez ere ermandadearen barruan. Aitonari isuna jarri zioten nazionalista izateagatik Francoren tropak sartu zirenean. Ermandadekoak nazionalistak omen ziren. Borroka latzak izaten ziren nazionalisten eta karlisten artean.</p>

26. Ilea moztu Ataungo neska bati zigor gisa

- **Erref**: ATA-015/043
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 01:03:56. **Bukatu**: 01:06:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Francotarrak sartu zireneko gorabeherak. Neska batek erantzun egin zien soldaduen "¡Viva!" oihuei, eta zigor gisa ilea moztu zioten. Gero paineluaz burua estalita ibiltzen zen.

27. Lau abizenak Zurutuza

- **Erref**: ATA-015/045
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 01:07:27. **Bukatu**: 01:08:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Ataunen abizenak asko errepikatzen dira. Bertakoak bertakoekin ezkontzen zirelako izango da. Lehengusuen arteko ezkontzak ere izaten ziren. Beren aldameneko baserrikoek lau abizenak Zurutuza dituzte.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-27

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com